

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresaren funtsezko baliabideak honela banatzen dira:

- **Baliabide fisikoak:** gure enpresaren kasuan bulego bat izango dugu gurekin harremanetan jarri ahal izateko. Bulegoa izango litzateke gure enpresako baliabide fisikoa.
- **Baliabide intelektualak:** gure baliabide intelektuala enpresaren patentea da, hau da, enpresaren ideia eta izenarekiko duen erlazioa.
- **Giza baliabideak:** gure kasuan, etorkizunera begira, ikuspegi eta sormen handia dugu, kreatibitate handiaz gain.

Hiru bazkide gara:

- **Saray:** bezeroekin harremanetan jartzeko eta komunikatzeko gaitasuna.
- **Maddi:** salmenten jarraipena egiteko gaitasun administratiboak.
- **Sofia:** arlo teknologikoen inguruko lanak egiteko gaitasuna: esaterako, webgunea egiteko eta hornitzaileekin interneten bidez harremanetan jartzeko.

Finantza-baliabideak: gure aurrezkietatik eta inbertitzaileengatik lortzen dugun dirua.